

er  
kusi



Hainbat erakusketa daude museoan Jon Berriaren / argazki pressa

### arteako ekomuseoa baserrietako ondarearen gordailu

Baserria izan da hainbat mendetan euskaldunon bizimoduaren ardatz eta babes. Euskal Herria kale-tartzearekin batera, ordea, galdu egin du lehen zuen izaera eta indarra. Arratian, oraino baserriar izaera gordetzen duen ibar hartan, baserriaren on-dare kulturala berreskuratze eta gordetze aldera, Ekomuseoa zabaldu zuten duela urte batzuk. Artea herrian, hain zuzen. Ekomuseo horretan, alde bate-tik, baserriko bizimoduaren eta naturaren arteko harremana azaltzen da. Bestetik, baserriaren ber-aren arkitektura. Arratia, bestela ere, baserri ede-

rren erakusleho paregabea da. Barruan, eskualde-ko baserrien girotzea egiten da: gelak, sutondoa, ukulua, garai bateko altzariak, nekazaritzako la-nabesak... Hainbat erakusketa ere badira: artile eta lihoari buruzkoa, herri medikuntzaren gainekoa, joko eta kirolen ingurukoa... Galtzen ari diren lan-bideek ere toki nabarmena dute Arteako Ekomu-seo horretan. Kanpoaldean, garai bateko herrixka bat irudikatzen da, mamut erraldoi bat, historiau-rreko eszenak eta abar. Orduetgia: astegunetan, 10:00etatik 17:00etara eta larunbat eta jaiegunetan, 10:00etatik 19:00etara.

Ekomuseoaren kanpoan garagardotegi bat dago, familia osoarekin otordua egiteko leku egokia.

Informazioa: [www.artea-udala.org](http://www.artea-udala.org)

## perretxikoak landatzen

eremu babestuak | andaluzia



Enegorri edo pinu-perretxikoak (*Lactarius deliciosus*) landatzeko asmoarekin dabil, bai, argazkiko gaztea. Andaluziako Juntako teknikaria da. Es-gorrien espora liofilizatuak uretan jartzen ari da, gero zuhaitzetako sus-tietan txertatzeko edo inokulatzeko. Modu horretara, intseminazio tifizialaren bidez, perretxikoak landatu nahi dituzte Andaluziako na-reremu babestuetan, eskasten ari baitira bertoko basoetan. Asteon ja-i du abian Andaluziako Juntak ekimena. Honezkeron bat baino gehiago knika hori ikasteko irrikari izango da Euskal Herrian, onddoekin edo taberriko zizekin gauza bera egiteko.



klik  
klik

azokak

### erle eguna gaur usurbilen

erle Eguna ospatuko dute gaur Usurbilen, zpi-garren urtez jarraian. Goizeko 11:00eta-ko 14:00etara erletik sortutako hainbat pro-dukto izango dira plazan, hala nola ezti, kos-etika, ukenduak, gozoak, argizaria... Eki-ldi nagusia, hala ere, Euskal Herriko ezti-ahaketa izango da. Aurten, ordea, beste bi-ahaketa ere izango dira: gozogintza lehia-estetik, eztiarekin egindako postreena; eta-estetik, argazki lehiaketako sari banaketa-gingo dute.

natura

### aralarko mitologia eta historian barna

Aralar Natur Parkeak ibilaldi bat antolatu du gaurko Aralarko mitologia eta historia-ren inguruan. Ataungo Ergoiena auzotik abiatuko da txangoa, 09:00etan. Atxurrene baserriatik Berrenoako galtzada hartu eta Be-rrenoa eta Intsusburu aldera joko dute, Jon Alzpurua Atauniker taldeko kidea gidari du-tela. Ibilbidean zehar inguru horretako his-toria eta mitologian murgiltzeko aukera izango dute Alzpuruaren azalpenen bitartez. Lau ordu eta erdi inguruko ibilja izango da.



Garia ereingo dute gaur, antzinako erara, laiekina eta idi pareekin. Alaiak Kultur Taldea

## errezil sagarraren jaia

gari ereitea ere egingo dute | errezil

Dozena bat urte badira Errezilgo sei baserri-tako sei emakumek Errezilgo Azoka ize-neko taldea sortu zutela. Etxeko produktuak eta jakiak saltzeko asmoarekin era-tu zuten taldea, Errezil sagarra batez ere, errezil-darrek lbarbi sagarra deitzen dutena. Herriko denda itxi zenean ere, eurek hartu zuten haren ardura. Eta duela zortzi urte, be-rriz, Errezilgo sagar eguna antolatzeari ekin zioten, herria famatu duen fruta eta aspal-di-ko ohiturak gordetzeko. Izan ere, garai batean jende ugari joaten zen propio Errezila sa-garrak erostera. Herriz herri azokak ugartzearekin batera, ordea, jendeak utzi egin zion Errezila joateari, eta ohitura hori galtzen joan zen poliki-poliki. Hori dela eta, Errezil sa-garra sustatzeko hasi ziren egun hau antolatzen. Errezilgo Azokako emakumeak ere ibiltzen dira azokaz azoka beren produktuak plazaratzen. Ohitura zaharrari utsiz, sa-garrak dozenaka saltzen jarraitzen dute.

**Gaur, garia ereingo dute garai batean bezala: idiekin eta laiekina**

Gaur, Errezil sagarraren azokan, goiz osoan salgai izango dira makina bat jaki: sagarrak nola ez, eta horiek egin daitez-keen produktuak: marmelada, postreak, kontserbak... Horrez gain, errezil-dar batek lore lehorrekin egindako lanak ere ikus-gai jarriko ditu. Ez dira faltako talogileak ere, eta taloari lagun-tzeko, sagardoa izango da txotxetik.

Baina gaurko azoka berezian errezil-darrek beste ekimen polit bat abiatuko dute. Ga-raia ereingo dute garai batean egiten zuten moduan. Atala Kultur Taldeak antolatu du ekimena. Belamendi baserriko saluean hiru talde ariko dira lanean. Lehenbizi idi-pare-aren laguntzarekin nabarra pasako dute. Gero, adinekoak ariko dira soroan, aitona- laian eta amonak altzurrean; ondoren, helduak ariko dira langintza berean, laiarekin eta ai-tzurarekin; eta bukatzeko, gazteak. Segidan, hazia zabaldu eta idi-parearekin area pa-satuko dute. Halaxe egiten zuten aspaldiko urte haietan. Jantziak ere ordukoak eramango dituzte baserri-tarrek. Garai bateko ohituren eguneratze horretan izango da bertaritzen denarentzat bestelako ikuskizunik ere. Gari ereiteko ofizio hori gaur erakutsiko dute jen-daurrean, baina aurreko egunetan gogor aritu dira entrenatzen; eta-ede-koek erakutsi diete gazteei laila erabiltzen.

**Zer:** Errezil Sagarraren Azoka berezia eta gari ereitea, antzi-nako erara. **Non:** Errezilen. **Noiz:** goiz osoan.

